

BEGITARA BEGIRA (VENDETTA)

Jaitxi palkutik momentutxo batez
ta hartu lekua ene artean.

Begiraiguzu denoi zuzen begitara
..... ugar zor dizkiguzu ta.

Esaiguzu hau ez dela geurea
herri faltsu bat izan dugula maite.

Geure arteko ta malkoak
lekuz kanpo sentitzen dituzun horrek.

Begitara begira, begitara begira
lekuz gaudela esaiguzu
begitara begira, begitara begira
lekuz kanpo esaiguzu

Zeure palku-kideek entzun ez dezaten
uzkurtu eta esaidazu
bizi-bizirik dela ez al duzun ikusten
neurea ta neure lagunuen herria
..... badakit galderen kantu hau
entzungo duen azkena zeu zarela.

Beraz amestuko dut topatu
ta honakoa oihukatuko dizudala

begitara begira, begitara begira
lekuz kanpo gaudela esaiguzu
begitara begira, begitara begira
lekuz kanpo gaudela

Lurretik lorera, loretik
legetatik urrun, malkotatik gertu
esaidak lagun, eskutik helduta begitara
herrian jarraituko diagula